



ALDAKETEN EREMUAN JARDUTEKO PROTOKOLOA

1. Araua

Edozein unetan, taldeko ofizial batek soilik du baimena aldaketen eremuan ibiltzeko. Ofizialak aldaketen eremuaren mugak errespetatu behar ditu, erdiko marratik hasi eta aulkiaren amaieraraino.

Arbitroek honela jardungo dute:

Bigarren ofizial bat altxatzen bada aulkitik (protestarik egin ez arren), lehenengo aldian, jokoa geldiarazi gabe, ondoko aipamen hau egingo du: **“MESEDEZ, LAGUN BAKAR BAT ALTXA DAITEKE AULKITIK”**.

Bigarren ofizial bat altxatzen bada aulkitik bigarren aldiz, jokoa geldiarazi eta aurreko ohartarazpen bera egingo zaio.

Une horretatik aurrera zigorrak ezartzen hasiko dira, **16:1c**, **16:3c-d** edo **16:6** a (ohartarazpena, bi minuturako egoztea edo partidatik kanporatzea) arauen arabera.

Bigarren pertsona hori zigortua izango da altxatzeagatik soilik, pentsa liteke ez du inolako aipamenik egin ego kezurik agertu epaileen lanaren gainean.

2. Araua

Ofizialei aldaketen eremuan mugitzen uzten zaie, eginkizun hauetarako, bereziko:

- a) Jokalari aldaketak zuzendu.
- b) Jokalariei gomendio taktikoak eman jokalekuan edo aulkietan.
- c) Mediku laguntza eman.
- d) Taldearen time-out bat eskatu.
- e) Kronometratzaile/ohar-hartzailearekin komunikatu; hori soilik taldearen

arduradunari aplikatuko zaio time-out eskatzeko egoeretan, jokalaria bat aktan apuntatzerakoan edo beste salbuespen kasu batzuetan.

Arbitroek honela jardungo dute: Ikus 3. araua.

3. Araua

Jokalariek eta taldeko ofizialek ez dute eskubiderik enbarazu egiteko arbitroei, ohar-hartzaile/kronometratzaileei, jokalariei, beste taldeko ofizialei edo ikusleei, protesta eginez edo jarrera probokatzailea eta kiroltasunik gabea erakutsiz (hitzak, keinuak eta aurpegierak).



Arbitroek honela jardungo dute:

1. Nabarmenak ez diren ekintzak (arbitroak soilik entzuten ditu, ez dira publikoak)

a) Ofizial bat edo jokalaria bat eserita edo zutik badago aldaketen eremuan eta **inolako keinurik egin gabe** komentarioak egiten baditu isil antzean, baina arbitroak entzuteko moduan, eta behin eta berriz; adibidez:

urratsak, falta erasoan, kanporatzea...; jokoa geldiaraziko da (time out), eta ohartarazpen hau egingo zaio ahoz: **“MESEDEZ, ZURE JOKALARIEI AGINDUAK EMATERA MUGA ZAITEZ”**

b) Ofizial bat edo jokalaria batek (aurreko bera ez izan arren) **a)** atalean adierazitakoa egiten jarraitzen badu, eserita edo zutik egonda, progresiboki zigortuko da (ohartarazi, bi minuturako egotzi eta kanporatu)

c) Ofizial bat edo jokalaria bat eserita edo zutik badago eta **keinuen bidez edo hitzez kexatzen bada** (arbitroak adierazi duenez bestelako zigor tekniko bat edo diziiplina zigor bat eskatzen du), denbora geldiaraziko eta progresiboki zigortuko da.

2. Ekintza nabarmenak edo publikoak

a) Ofizial bat edo jokalaria bat eserita edo zutik egonda komentarioak edo keinuak egiten hasten bada (aldaketen eremuan oihuka besoak zabalik dituela, edo saltoka...)- nahiz eta arbitroei ez zuzendu- denen aurrean (arbitroez gainera beste taldeko aldaketen eremuan dagoenak edo ikusleek ikusteko moduan), gutxienez bi minuturako kanporatuko da.

b) Aurreko kasu bera, baina arbitroei edo aurkariei irainak eta mehatxuak egiten bazaizkie, ofiziala edo jokalaria zuzenean kanporatu egingo da.

4. Araua

Aldaketen eremuan dauden jokalariek baimena dute aulkien atzealdean berotze ariketak egiteko, baina aurrealdean ezingo dira ibili.

Arbitroek honela jardungo dute: Time out eta taldearen arduradunari komentarioa egin

5. Araua

Arbitroek ez lukete egon behar aldaketen eremuan, edo gauza bera dena, arbitroek ez lukete elkarrekin aldaketen eremura joan behar han zer esaten den entzutera, eta diziiplina zigorren bat ezartzeko abagune bila.



6. Araua

Arbitroek gorabeheraren bat ikusten badute aldaketen eremuan, helburua da barkatzen ari garen itxurarik ez ematea.

Arbitroek honela jardungo dute: Irainen edo keinuen bidez ikusleren bat mehatxatzen duen ofiziala edo jokalaria zuzenean kanporatuko da.

7. Araua

Arbitroak jokoan jarri behar du arreta, baina aldaketen eremuan arau-urratze larria gertatzen bada, lehenbailehen esku hartu behar du.

8. Araua

Arbitroek ez dute kezkatu behar aldaketen eremuan gertatzen diren ekintza soil eta bat-batekoekin. Era horretako ekintzak pasatzen utz ditzakete jaramonik egin gabe, betiere behin eta berriro gauzatzen ez badira.

9. Araua

Arbitroek ezin dute onartu beren aurkako keinu mespretxuzkorik edo arbitroa gutxiesteko jendeari begira egiten den keinurik.

Ohiko keinuak: Ofizialak edo jokalaria, eskua zabalik duela, bere masailean kolpetxoak ematen ditu arbitroak bere ustez erabaki okerra hartu duelako, hatz erakuslea lokira eraman eta biratu egiten du (“erotuta zaude”), edo bi eskuak burura ematen ditu.

Arbitroek honela jardungo dute: Time out eta zuzenean kanporatu.

10. Araua

Ez da onartuko aulkiko kide "GUZTIAK" zutitzea arbitroaren erabaki baten aurrean protestatzeko.

Arbitroek honela jardungo dute: Arbitroek jokoa geldiaraziko dute eta **lehen alditik** beretik kargu hartuko diote ofizial arduradunari edo aulkian dagoen ofizialari, bat bakarra baldin badago, eta ondoren zigorrak ezarriko dituzte progresiboki.

11. Araua

Ez da onartuko aldaketen eremuan dauden jokalaria edo ofizialak beren aulkia dagoen eremutik haratago joatea. Aginduak ematera 10 metroko eremura edo haratago iristen den ofizialak edo jokalaria.

Arbitroek honela jardungo dute: Lehen aldian hitzez ohartarazi, bigarren aldian time out eta ohartarazpen hau: **MESEDEZ, ALDAKETEN EREMUAN EGOTERA MUGA ZAITEZ**". Une horretatik aurrera, zigorrak jarriko dira progresiboki.